

# ZALDIBIAKO XX MONDEJU LEHIAKETA

## 1. PARTE-HARTZAILEAK:

Parte-hartzea irekia izango da. Mondeju zuria egiten dakien edonork har dezake parte.

## 2. IZENA EMATEA:

Izena urriaren 25a baino lehen eman behar da **649 316 534** telefonora deituz. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 19:00era.

## 3. AURKEZPENA:

- 5 kana ekarri behar dira jateko prest.  
- Bertako produktuekin eginak. - Mondejuak, beren salda eta guzti, Zaldibiako plazara eraman behar dira urriaren 26ko goizeko 10:00etarako.

**Oharra:** Antolatzaileek lehiaketako parte-hartzaileek ekartzen dituzten ontziei, zenbaki bana emango diete, epaimahaikideek mondejugileen izena jakin ez dezaten.

## 4. PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK:

Lehiaketan aurkezten diren mondejuen puntuaziorako, irizpide hauek hartuko dira kontuan: itxura, estalkia, ebaketa, zaporea, usaina eta nahasketako osagaien txikitze-tamaina.

## 5. EPAIMAHAIAREN OSAKETA:

Epaimahaia jatetxeetako sukaldari ezagunek eta gai honetan aditu diren herritarrek osatuko dute.

## 6. SARIAK:

- 1.- 300 euro eta txapela.
- 2.- 200 euro
- 3.- 100 euro

## 7. PARTE-HARTZAILE GUZTIEK 25na euro jasoko dituzte


### Laguntzaileak:



# 2014KO ARDIKI EGUNA

## Urriak 26

# Zaldibia



# ardiki eguna 2014

## URRIAK 26

**10.30etan, Diana.** Herriko txistulari taldea, Xaprerren trikitia Juan Mari Beltran, Astiazaran aita alabekin taldean eta Hernaniko musika eskolako, albokalari, dultzainero, eta txistulariak alaituta.

**Artisautza erakusketa.** Ardi gazta eta Mondejuak egiten, artilea lantzen eta zesto egiten, galtzerdiak egiten, telarra, zestoak egiten,

**Ganadu erakusketa.** Latxa arrazako ardi loteak, ahuntz azpi gorriak, pottokak.

**Artisau salmenta azoka.**

**12.00etan Zaldibiko XX. Mondeju eta XVII. garren Aralarko Gaztaren Lehiaketak.**

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertso kantari direla mondejuak dastatu ahal izando dira herriko plazan. Antzokiko bazkarirako txartelak izango dira salgai 25 eurotan.

**13.15etan. Sari banaketa.**

**14:30ean. Bazkaria.** Herriko jatetxeetan mondejua, ardikia saltsan, ardikia erreta piparrakin, gazta, ardoa, kafea, kopa eta purua. Bazkari-txartelak herriko jatetxeetan daude salgai.

**18:00etan. " 1. Erromeri bira Goierrin "** herriko plazan

**19:30etan. Lagunarteko kalejira 2014ko Ardiki Egunari amaiera emateko**

**21.30etan. 2014ko ARDIKI EGUNAREN AMAIERA.**